

AITA EMILIANO BARANDIARAN
ITZULPENGINTZA

Zornotzako ikastetxean ikasketak egindakoak iazko udazkenean azkeneko aldiz bildu ginenean, Aita Emilianoren loba batek, haren jaiotze-egunaren mendeurrena zela eta, eginiko eskabidea aztertu ondoren Karmel aldizkari honetan berari ale berezi bat eskaintzea erabaki genuen. Horrela, aldizkariaren zuzendari dugun Julen Urkizak A. Emilianok egindako itzulpen lanari buruz zerbait idazteko eskatu zidan

Ezin nion inolaz ere uko egin, ohore handia delako niretzat urtebetean hezitzaile izan nuenaren lanei buruz zerbait idaztea, hain zuzen ere, Aita Emiliano izan zelako, hainbatetan, euskaraz idaztera bultzatu ninduen.

Nobiziotza egin ostean Markinara joan ginenean ikasle-talde handia ginela eta gurekin ikasten ari ziren Portugaletik etorritako ikasleek greko gutxi zekitela aitzakiatzat hartuz, ikasturte hartako hiru euskaldunoi grekoaren ordeztu Aita Migel Marirekin euskara sakontzeko aukera eskaini zigun, euskarako eskola horiei balio ofiziala emanez.

Berari esker irakurtzen genuen astean astean behin bazkal-tzen genuen bitartean euskaraz. Estualdi galantak izaten genituen arren horretarako ohitura falta nahiz lotsa ugari genuenok; horrek, baina, asko lagundu zigun euskararen aldeko bi-deak urratseko. Jendaurrean hitz egiten ohitzeko ikaskideen

artean urtean behin egin behar izaten genuen hitzalditxoak ere euskaraz egitera bultzatu ninduen Familia Santuaren egunean.

Musikaria izanik, oraindik latina baino erabiltzen ez zen garai haietan, igandetako mezetan hainbat euskal kantu, besteak beste, "*Artu, Aita, Santua...*" abesten genituen.

Gu Markinara heldu orduko jadanik argitaratuak zituen zenbait liburu. Idazlea zela jakin arren, orduan amets hutsa irudiko zitzaidan, urteak joan eta gero nik fraile zintzo eta euskaltzale zintzo haren lanaz idazteko aukera hau izango nuenik. Orainsu arte ez dut jakin hainbeste itzulpen-lan egin zuenik ere.


Ikusten denez, ez zuen astia alferrik galtzen. Eskolak eman eta ikasleon hezitzaile-lanaz arduratzeaz gainera lortzen zuen astia, antza, erleen antzera, jo eta ke, etenik gabe isilean jardunez zenbait liburu euskaratzeko erabiltzen zuen.

Nahi izanez gero mirariak ere egiten omen dira bizitzan. Halako zerbait gertatu zitzaion gure fraile langile sutsuari. Hurrengo orrietan berak itzuli eta argitaratu gabe geratutako liburu batzuen berri emango dizuet labur-labur.

ITZULPENEI BURUZKO JAKINGARRI BATZUK

Aita Emilianok itzulitako lanak jorratzen hasi aurretik, intergarritzat jo dut berak itzulitako esaldi bat abiapuntutzat hartu eta Lino Akesoloren itzulpenak aztertzerakoan Luis Baraiazarrek gogora ekartzen dizkigunak aipatuz hastea. Eta hori, horrela jokatzuz, errazago ulertuko dugulako Aita Emilianok burututako lana.

Jakin ere, bazekien, Aita Emilianok, itzulpen lanak zer eskatzen zuen, itxurosoa izateko. Gar-Mar idazlearen esaldi bat euskaraz eskaintzerakoan honako hau diosku: "*Izkuntza bate-tik bestera ezer itzuli nai duten ala-olako idazleak, iru oker batera adierazteko arrizkuan artzen dira: izkuntza bata ezta-*



kitela: bestea ere ez ongi; gaia bera ez dutela ezagutzen" (Gar-Mar'en *Gogo-izpiak-3-tzar igazkorrak*, III, 2). Esaldi hau itzulzailearen argazkiaren klitxe negatiboa baldin bada ere, nekez eskaini daiteke teoriaren laburpen zehatzagorik, zeregin horretan jarduterakoan nola jokatu behar den esaten ez badigu ere.

Teoriaren urratsetara hurreratzen, ostera, Luis Baraiazarra idazleak lagunduko digu, hurrengo hauek gogora ekarriz:

"Itzulpenak, oro har, era askotakoak izan daitezke, baina bi joera nagusi antzematen dira sarritan: bata, mezua albait zehatzen bildu ondoren, gainerakoan askatasun handiz jokatzen duena; bestea, berriz, jatorrizko hizkuntzako mezua eta formaren baliokideak beste hizkuntzan egoki adierazten dituenak. Bigarren era hau dela dirudi itzulpen on batek bilatu behar lukeena, betiere, formari dagokionez, jatorrizko hizkuntzaren kalkoetarantz irristatu gabe...

Eskura izan dudan liburu bat erabili dut lantxo hau idazterakoan: X. Mendigurenek idatzitako *Itzulpen Teoriazko Ezagupenak* (1983, Lazkao-Gipuzkoa). Itzultzea zer den adierazteko, E.A. Nida-ren definizioa hartzen du abiapuntutzat. Honela dator euskarara itzulita:

"Itzultzea sorburu bizkuntzako mezuaren baliokide natural ahalik eta hurbilena bizkuntza bartzaitlean birsortzean datza, lehenik adierazi mailan eta estiloarenean gero".

Definizioa azalduz, honela dio liburuaren egileak:

- a) *Mezua birsortu. Itzulpenaren lehen helburua mezua birsortzea da. Baina mezua birsortzeko, gramatikazko eta biztegitzko egokitzea sail handia egin behar da. (...)*
- b) *Baliokide baina ez identiko. Itzultzaileak identitatea baino baliokidetasuna lortzen gehiago saiatu behar du. Nolabait esateko, mezuaren birsorketa gehiago azpimar-katu behar du, eta ez du baina beste kezkatu behar adierazpen formari iraunarazteaz. (...)*

- c) *Baliokide naturala. Itzulpenik onenak ez du itzulpen kutsurik. Baina ez du kultur itzulpen izan behar, hizkuntza itzulpen batzik, gramatikazko eta estilistikazko astuntasun eta bitxikeriarik gabea. Baina ez du formazko leialtasunaren azpian erori behar, mezu edukiaren kaltetan.*
- d) *Baliokide hurbilena. Itzultzaile arduratsuak abalik eta baliokide natural hurbilenera joko du. (...)*
- e) *Adieraziaren lehenetsuna. Testu gebienetan (alderdi formal berezia duten banaka batzuk kenduta) adieraziri eman behar zaio lehenetsuna. Horrela, egitura formale-tik nabarmenki saihestea edo aldentzea zilegi ezezik oso beharrezko gerta daiteke sarritan.*
- f) *Estiloaren garrantzia. Adieraziarekin alderatuz gero estiloa bigarren mailakoa bada ere, garrantzitsua da. Bertsoa ez dago prosa bailitzan itzultzerik, ez eta esposiziozko testua kontakizuna balitz bezala ere."*

Ez dakigu Lino Akesolo teoria hauen jakitun izango zen ala ez; beharbada, bai; itzulpen ugari egin beharra izan zuen, eta ziur asko itzulpen-teoriaz ere ongi jantzirik izango zen. Dena dela, teorien atzaparretan edo, hobeki esan, morrontzan erori ez zena bistakoa da."(Luis Baraiazarra, *Lino Akesolo itzulpen lanetako maisua*. Karmel, 2002-I).

Nik ere Aita Emilianori buruz antzerako zerbait esanaz eman diezaioket hasiera hark egindako lan oparoa aztertzeari. Egia esan, oso gutxik genekien Aita Emilianok hainbeste lan egin zuenik, euskara hain baztertua zegoen garai hartan. Gutxiago, oraindik, zer-nolako gai ezberdinak jorratzen jardun izan zuen. Egia esan, benetan aipagarria da alor honetan burutu zuen lana, argitaratu gabe geratu zen arren.

Gaur egun, batetik, hainbeste baliabide (hiztegi orokorrak nahiz bereziak, zuzenketak egiteko ordenagailuek ematen duten erraztasuna, euskarak berak lortu duen maila...) esku artean izanik, eta, bestetik, itzulpen-alor honi buruz idazki eta li-



buru ugari argitaratuta eta ikasketak unibertsitatean jarriak ditugularik, zail egiten zaigu aurreko garaietan alor honetan jardun izan zuten pertsonen lan astuna osotasunean ulertzea.

Aita Emilianok, zeregin horretan jardun izandako beste hainbatek bezala, lanean jarraituko prozesua, egin egingean ere, nahikoa latza izan zen: a) itzulpena eskuz idatzi; b) makinaz garbira pasatu; c) makinaz idatzitako bertsioa orraztu; d) zuzendutako bertsioa ahalik eta arretarik handiena jarriz berriro makinaz idatzi; eta e) inprimategira bidali aurretik berriro aztertu. Hala ere, halako jardunean ez zen izaten bat ere ohikoa akatsik gabeko testua ateratzea; horregatik egin behar izaten ziren, berriro ere, arreta handiz, inprimategiko testuaren azken zuzenketak. Ordukoak bai gozatuko zutela gaur egun ordenagailuek eskaintzen diguten aukera paregabea eskara izatea!

Lan hori euskaraz burutzekorakoan, bestalde, hizkuntza alorreko zenbait eragozpen ere izaten zituzten: gramatika-kontuak argitu gabe izatea, hiztegi-alorra gutxi jorratuta (batez ere kontzeptu berriei aurre egiteko) izatea, aurreko eredurik eza, eta, horrez gainera, gaiak norberaren kontura aztertu eta sakondu beharra...

Hori horrela, norbaitek nola prestatu zuen Aita Emilianok bere burua lan horretan hain egokiro jarduteko galde dezake. Erantzuna, nire ustetan, nahikoa erraza dugu. Garai hartan latina eta grekoa ikasi beharra izaten zuten apaiz izan behar zutenek. Ikaste horretan gramatikak jorratzeaz gainera, latin eta grekoko klasikoen lanak itzultzen ziren. Itzuli ere, gainera, ezaugarri estilistikoak eta aztertuz. Latina hitz egiteko eta grekoa zertxobait gutxiago ikasten ziren arren, batez ere testuak ongi itzultzeko gaitasuna lortzea izaten zen helburu nagusia. Gogora ekarri Probintziako kapituluetak aktak ere latinez idazten zirela!

Aurreko horri Aita Emiliano bere bizitza osoan hizkuntza horien irakasle izan zela gehitzen badiogu, ez zaigu bat ere zail egingo itzulpen-alor horretan erakutsi zuen gaitasun eder

hori ulertzea. Bestalde, frantsesa ere bazekien, heriotza gutun bat frantses idazten ari zela etorri zitzaion eta.

Horrez gainera, Karmeldar Ordenako nahiz Ordenatik kanpoko zenbait euskal maisurekin ere izan zituen harremanak. Besteak beste, Aita Gabirel Jauregi, Lino Akesolo, Orixe idazleekin. Markinan, bestalde, lagunkide hizlari paregabeak izateaz aparte, liburutegi ederra zuen eskura, bere euskara sakontzeko nahiz sortzen zitzaizkion zalantzak argitzeko. Koaderno batean aditz-eskemak eta zituen idatzita erraz kontsultatzeko eran.

Horrela, Aita Lino Akesolok ez zuen euskarari dagokionez inolako eragozpenik aurkitu lanak argitaratzeko irizpidea ofiziala ematerakoan. Lanak aztertu eta nagusientzat sinatu zuen idazkian lau lan ageri dira: "*Eresi-ikasbidea, Euskal-ereslari bikaiñak, Gogo-izpiak* (Gar-mar) *eta Andre Mari Gaztediaren eskuetan* (II eta III zatia). Gaiei zegokienean, indulgentziei buruz, esaterako, ohar batzuk egin bazituen ere, ezertxo ere ez euskarari buruz.

Aita Emilianok berak ematen digu Orixe idazlearekin izandako harremanen berri Gar-Mar josulagunaren *Gogo-izpiak* (Sugerencias) liburuari egindako sarreran. Sarrera hori interesgarria dela uste dut, bertan itzulpenek izan ohi dituzten zailtasunak ere planteatzen direlako. Itzulpenaren estratako neurri estuetatik kanpo erabiltzen duen euskara-motaz jabetzeko ere baliagarri gertatuko zaigu. Honela dio:

GAR-MAR Aita Josulagunaren SUGERENCIAS liburu eder ta zorrotza oso ezaguna da munduan zear, erderaz sei aldiz argitartua ta atzerritako izkera nagusi geienetara itzulia izan bai-da.

Eztegu, beraz, liburu onen balioa aupatu bearrik. Berez aupatua agiri baida. Guri beintzat, argi aitortuko degu, lendabizikoz irakurri genduenetik, gogoko txit egin zitzaigun eta, inoiz argitara emateko ametsik gabe izan arren, pitinka-pitinka, euskal-erreztasuna landu bidez,

euskerara itzultzen leiatuak gera ta lan ortan urtealdi bateko amakatzxo ordu emanak. Bein baño geiagotan, zinez, tinko gelditu ta arnasartu bearra izan degu. Sailllean saillean topatzen bai-gendun, jota jo ere, puzkatu ezitneko aitz gogorren bat. Baña, ekin ta ekin, eztiogu mailuari atsedetik eman, koxkarik zakarrenak menderatu arte. Ta eztegu esango arloa oro bear bestean, noski, sakondu ta gogoxo biurtu degunik, guk al bestean, azal-gañetik ba'da ere, berdindu bat eman diogula baizik...

Alaz ere, euskera-gaia ain maingu eztirala deritzaizkigun ainbatek -beste batzuen artean Orixan zanak berak- eman diguten iritziz, lotsarikabe argitaratzekoa añakoa ba-dala-edo siñesterazi digute.

(...) SUGERENCIAS liburuak bi atal ditu zein baño zein eder, mardul, zorrotz eta sakonagoak. Bigarrenaren gatak, batez ere, sakonak baño sakonagoak deritzaizkigu euskal-trakurle geienentzat. Lana osoan eginda daukagun arren, oraingoazko gure asmoa, bigarrrena urrerengorako utzita, lenbizikoa bakarrik argitaratzea zen. Egilleak, ordea, biak batean argitaratzekotan ezik, etzula baitmenik ematen entzuna eta irakurria geunkan. Zer egin? Apal apal beragana jo, gure asmoak zeintzuk ziran argi eta garbi aitzen emanik... Aran erantzuna: bere aldetik etzizula ezetarako ergozpenik jartzen, guk nahi bezela, Lenbiziko atala, Bigarrenetik bananduta argitaraldu al izateko... Oso atsegingarri zitzaiola bere liburu bat, Loyola ta Xabier'ekin orren sentidasun aundia dun euskal-izkera aberats eta miragarria itzulita ikustea ta abar... Beraz, orain arte beste inñori eman ezttion eskubidea damaigu guri euskaldunoi.

(...) Liburuaren SUGERENCIAS izenak berak naiko lan eman digu, erderazko itz orren barne-mutiña edo esan-naia osoro adieraziko lukean euskarazko beste bat billaketan. Ainbat erabilili ere egin ditugu eskuartean:

BURUTAPENAK? TXINPARTAK? BARNE-IZPIAK? GOGO-IZPIAK?... Denai topatzen genien, alaere, baña edo kokaen bat. Azkenez, zuzen edo oker, erderazkoa bera lenbiziko titulutzat uztea erabaki degu, GOGO-IZPIAK ezarririk bigarren izenpuru edo aideragarritzat.

Gorago esan dugun bezala, edozein libururen itzulpena egiteko erabakia hartzen duenean, itzultzaileak hainbat gauza izan behar ditu gogoan: liburu horrek benetako baliorik duen, itzulpena egiteko egilearen eskubideak eskuratu beharra, liburu horretako zenbait atalek, bereziki liburuaren muina aditzera ematen duen izenburuak itzultzeko orduan izango dituen zailtasunak...

Guzti horri, jakina, itzultzaileak bere hizkuntzaren arloan izan ditzakeen eragopenak gehitu behar zaizkio. Gure kasuan, esaterako, euskara idatzirako arau finkorik, aditzaren forma estandarrik, hiztegi arauturik edota zenbait kontzeptu aditzera emateko hitz modernorik ez izatea. Hori horrela, gerra garaian eta ostean euskaraz horrelako gai sakonak plazaratzen jardun zuten gure idazleek, akatsak akats, izugarrizko merezimendua izan zutela aitortu beharra dugu. Hainbat kasutan, gainera, etsipenik ugari sortu zien hainbeste ordutako lana burutu eta liburuak argitaratzeko biderik ez zegoela ikusteak!

Aita Emilianoren kasuan, bat-batean etorri zitzaion heriotzak beraren hainbat lan zokoan, hauts artean baztertuta geratzea ekarri zuen. Geroago, jakina, hizkuntzari zegokionez idazkera eta abar aldatzean eta erlijio-alorrean Kontzilioaren ostean zenbait erlijio-gaik bide berriak hartzean, ahalegin handiz eginiko lan horiek, ez aurrera ez atzera, argitaratu gabe geratu dira.

ITZULPENETAN AGERI DEN EUSKARA MOTA

Aita Emilianoren euskara jatorriz Leniz haraneko bizkaiera bazen ere, bere idazlanak eta itzulpenak, handi-handika aztertuta, gipuzkeraz idatzita daudela esan dezakegu. Edo, hobeto

esanda, euskara zabal batean idatzita ageri direla, beraietan gipuzkeratik kanpoko zenbait termino (*oro, txit, orobat, at...*) ere ageri zaigu eta. Era berean, noizbehinka hor tartekatzen zaizkio etxeko euskararen aztarna batzuk, hala nola, "*topo egin*" esaera zabalaren ordezt "*tril egin*" edota "*ibes egin*" esaeraren ordezt "*banka egin*" erabiltzen duenean.

Bizitzako azken itzulpenetan, gerra aurreko testuetan ageri den euskara baino ulergarriagoa eta, ondoriozt, herritarrengandik hurbilagokoa erabiltzen du. Bere sen didaktikoak irakurleengana hurbiltzeko ahaleginak egitera bultzatzen du. Hori horrela, ortografia eta ukitu txiki batzuk eginez gero, gaur egun jendaurrean jartzeko moduko testuak eskaintzen dizkigu lanik mardulenetan.

Guzti hori kontuan izanik, ni beraren itzulpenaren ezaugarri nagusienak hurrengo hauek izan zirela esatera ausartuko nintzateke:

1. Itzulpen ulergarriak eta atseginak egiten saiatu zen, euskal senez beteriko esaerak nahiz estilo literariozt jantzita-koak eskainiz.
2. Hitzet hitzeko itzulpena baino gehiago, jatorrikoaren esangura ahalik eta ondoen aditzera ematen ahalegindu zen, sarritan bere testua bera jatorrikoa baino biribilagoa ageri zaigula.
3. Latinezko itzulpenak egiterakoan hainbat aldiz irakurria zuen Julio Zesar erromatarraren "*veni, vidi, vinci*" esaera ospetsuan oinarrituta edo, egiten dituen itzulpenak bizibiziak dira eta euskarari aparteko indarra ematen diotenak. Hori, batez bere, hausnarketarako pentsamenduzko testuetan (Gar-Mar-enetan) ageri zaigu.

Erabiltzen duen euskara kontuan izanik, bestalde, ez dirudi lan guztiak garai berekoak izan zirenik. Horrela, esaterako, Jon Gurutzekoaren idazlanen itzulpenak eta "*mi enciclopedia*" erdarazko izenburua duen karpetan bildutako zientzia alorreko

gaiak zaharragoak, gerra aurrekoak nahiz oste-osteokoak izan daitezke. Hala ere, gehienak hirurogeiko hamarkada ingurukoak direla esan daiteke, urte horietan argitaratuak edota argitaratzeko prestatuak izan ziren eta. Zientzia gaietan erabiltzen duen euskarak Gabirel Jauregik erabilitakoaren antz handia du. Batetik, euskara erraza eta, bestetik, hiztegiari dagokionez neologismo ugarien erabilera. Esan den bezala, hirurogeigarren hamarkadan inprimatzeko prest zituen liburuetan askoz ere euskara modernoago erabiltzen du.

Lan guzti horietan ildo nagusi bat ageri da. Hau da, asmo didaktikoz idatziak izatea. Irakasle izanik, ardura handiz jokatu zuen mezua ahalik eta argien eta txukunen hartzailearen eskutara helarazteko. Guzti hori horrela, gaur egun ere, mereziko luke bere idazki batzuk argitaratzeak, erabiltzen duen euskararen jarotasuna eta gaien erakargarritasuna kontuan izanda.

Itzulpen sorta horretako lanak, bestalde, ez dira guztiak arlo berekoak. Esan den bezala, Aita Emilianoren asmo nagusia gai erlijiosoak jorratzea izan zen arren, baditu bestelako itzulpenak ere. Hurrengo lerroetan, labur-labur bada ere, lan horien berri zehatzagoak eskaintzen dizkizuet.

ITZULPENEN SAILKAPENA ETA BERRIAK

Hiru alorretan sailkatuko ditut argitaratu gabe utzi zizkigun lanak, gehienak erlijioarekin lotura badute ere. Honela, hobeki ezagutzeko bideak izango ditugu:

1. Gai erabat erlijiosoak:

Zer esanik ez Aita Emilianoren asmo nagusia, inguruko hizkuntzetan parra-parra argitaratzen ari ziren libururik interesgarrienak euskaratzea izan zen, euskaldunei harako libururik ederrenak euskaraz gozatzeko aukera eskaintzeko. Bide batez,

jakina, euskarak agerian inolako lekuri ez zuen garai haietan, euskaldunak alfabetatzera eta gure hizkuntza maitatzera bultzatzeko asmoa ere bai. Horrek, alabaina, gaiak eta ongi aukeztatzea eta norberaren denbora eta gaitasuna neurtzea eskatzen zuen.

Arlo honetan hiru itzulpen jartzen ditut, bakoitzaren aurkezpena, itzulpen bakoitzak duen garrantziaren arabera eginez.

a) Joan Gurutzekoaren "*Kantu Espirituala*"


Liburu hau (oso-osorik izan ez arren) orain dela urte gutxi, 1992.urtean argitaratu zen Jon Gurutzekoaren urtemuga zela eta, Aita Arostegik euskal idazleak mistiko ospetsuaren lanen atal hautatuak euskaldunen esku jartzea erabaki zuenean (*JON GURUTZEKO - Idazlan hautatuak*; Ediciones "EL CARMEN", Gasteiz, 1992). Ortografiari eta zuzenketa txiki batzuk egin zizkion A. Emilianorekin hainbeste urtetan bizi izandako Aita Migel Marik.

Mendeurren hori (Inazio Loiolakoaren jaiotzako 5.a eta Jon Gurutzekoaren heriotzaren 4.a) zela eta *Karmel* sortak ale berezi bat argitaratu zuen 1990ean, Jon Gurutzekoaren "*Kantika espirituala*" olerki ospetsuaren lau itzulpen elkarren ondoan euskaraz irakurtzeko aukera eskainiz. Bertan, aurreko lerroetan aipatu dugun liburua inprimategian zela eta ez zen jaso Aita Emilianok eginiko itzulpena. Berak itzulpenari "*Gogo-Abestiak*" jarri zion izenburua.

Dena dela kontuan izan behar da, ez dela berdín, beste zenbaitek egin zuten bezala, olerki ospetsu hori testuarekin inolako loturarik ez duela itzultzea edota gero testuan atalka-atalka azaltzen joateko itzuli beharra. Azken kasu honek testuarekin lotura estuagoa duela egitea, eta, ondorioz, muga estuagotan ibiltzea eskatzen du. Horrek, hainbatetan, baldintzatu zuen Aita Emilianoren itzulpena, zenbait joko estilistiko alborra utzi beharra sortuz. Hori horrela, kasuren batzutan euskarako bertsoak gaztelaniazkoak baino luzeagoak dira, gaztelaniaz

Jon Gurutzekoak hain trinko adierazitakoek euskaraz janzterakoan horrela jokatu beharra eskatzen zutelako.

b) Luis Evely abataren "Gizon ori zeu zera"



Liburu honen jatorrizko izena *C'est toi cet homme* da. Belgikan argitaratu zen lehen aldiz 1956an. J. Congar-ek egin

zior sarrera eta arrakasta handia lortu zuen. Gaztelaniaz 1965erako 3. argitalpen egin ziren.

Liburu hau itzuli eta argitaratzeko prestatzea, beraren irakurketa oso atsegina gertatu zitzaiolako egin zuen, nombait. Liburu oso egokia iruditu zitzaion, antza, hainbat gai erlijioso biltzen zituelako. Gaiak aztertzeko era ere gogoko izan zuen, ardura handiz eta txukun itzultzen ahalegindu zen eta. Honako hauek ziren bertako gai nagusiak: *Jainkoa ixilik al dago?*; *Jainkoaren itza itz bizia da*; *Zoriontsuak txiroak*; *Jainkoa maitasuna da*; *Parkamena*; *Espiritu Santua*; *Erritarren santutasuna*. [Gaztelaniazko argitalpenak (*Ese hombre eres tu*; Ed. sociedad de Educación "TENAS", S.A., Madrid.1965) 206 orrialde ditu]. Liburu honetako testu zati bat eranskin gisa eskaintzen zaizue. Horrela nolako euskara ulerterraza erabiltzen duen ikusteko aukera izango duzue.

B A R N E A N E Z K U T A T Z E N D E G U N


B A L I O A

Sendi Deunaren A. Teodosio'k erderaz egiña, ta

Barandiaran'dar A. Emiliano'k euskara itzulua.

c) Aita Teodosioren *"Barnean ezkutatzan degun baliola"*

Hau da gai erlijiosoan artean laburrena. Aita Teodosio de la Sagrada Familia karmeldarrak *"El tesoro que encerramos dentro"* izena zuela argitaratutako liburuxkaren itzulpena dugu



(Ediciones el CARMEN, Vitoria, 1966, 62 pag.). Hain zuzen ere, barne bizitza aberasteko asmoz karmeldarren nahiz bestelako otoizlariantzat egindako eskuliburua da. Karmeldarren espirituari estu-estu lotua. Lan honen itzulpenean ere trebetasuna agertzen du Aita Emiliano.

2. Gogoetazko gaiak

Alor honetan Gar-Mar jesuitaren "*SUGERENCIAS*" euskaraz *GOGO-IZPIAK* sartzen dut. Liburu honek bi zati ditu; lehena, heriotzak jo zuenean guztiz burututa, eta argitaratzeko beharrezko baimen guztiak eskura zituela inprimategira bidaltzeko prest zeukana. Liburu horri egin zion gorago transkribatu dugun sarrera mamitsua.

Zirrara handia sortu zion, seguruena, gaztelaniaz sei aldiz argitaratutako liburu horrek Aita Emiliano, harako itzulpen-lan handia bere gain hartzeko. Itzuli ere, gogotsu eta ardura handiz egin zuen. Euskara oso zaindua, bizi-bizia, benetan erakargarria darabil liburu honen itzulpenean. Oraingoan, hain gogoko zituen esamolde laburren mundutik jasotako estilo zorrotza erakusten du. Zenbait atalek berarentzat apropos eginak ziruditen. Egilearen mezua oso-osoan errespetatzen ahalegintzen den arren, izugarritzko indarra ematen die esaldiei euskaratzerakoan.

Aurkezpen honen amaieran eskaintzen dizuedan eranskinean zenbait adibide gozatzei aukera duzue, zer-nolako euskarara erabiltzen zuen ikusteko. Berak zuen itzultzeko jokamoldeaz jabetzeko ere baliagarri izango dituzuela uste dut.

Itzulpen alorretan, hizkuntza txukun erabili eta jatorriko esangura egokiro emanez gero, gainerakoei dagokienez irizpide ezberdinak ditugunez, hau da "zenbat buru hainbat aburu", zuek zeuek ikusi ahal izango duzue eta gozatu hain gogoko izaten zituen hainbat eta hainbat esaera zorrotz eta sakonen euskarako bertsioa.

3. Zientzia-gaiak:

Bere lanak biltzen dituzten artxiboko karpeten artean “*mi enciclopedia*” izena duen karpeta batean hainbat zientzia gai ageri zaizkigu euskaratuta. Gabirel aramaiotarraren bidetik jotatuz itzuliak izan zirela ematen du. Esan bezala, batetik, euskara erraza edo ulerkorra darabil eta, bestetik, hitz modernoek kasuan, ezinbestekoak gertatzen zitzaizkion neologismoak. Lan interesgarria benetan, euskara bizi-bizia eta aberatsa darabilelako. Ortografiari eta aditzari ukitu txiki batzuk egin eta neologismoak baztertuz gero gaur egun ere erabiltzeko eran idatziak ditugu bertako gaiak.

Liburuxka horretan hamalau gai ageri zaizkigu: *edeski aurreko tresnak* (8 or.), *aize-indarra* (7 or.), *sua* (5 or.), *gurpila* (12 or.), *erlojua* (5 or.), *idazkera* (8 or.) *argiztia* (5 or.), *egurats-indarra* (3 or.), *lurrun-aroa* (7 or.), *argazkitik zinemara* (7 or.), *indar iturri berri bat* (7 or.), *soñuen mundua* (6 or.) *estanda eraingia* (11 or.), *urrutidazkiña* eta *urrutizkiña* (7 or.). Gai guztien ondoren hiztegi txiki bat eskaintzen du, albon hitz ezezagunen gaztelaniazko ordezkoa jarritz.

Izenburuetan ageri diren zenbait hitz (*urrutidazkina* <telegrafa>, *urrutizkina* <telefonoa>, *edestia* <historia>, *argizkia* <optika>,...) baztertuak izan dira, baina beste batzuk bidea egin dute eta gaur egun ere erabiltzen dira: *baize-indarra*, *egurats-indarra*, *eztanda*, *argazki*, *erloju*, *zinema*...

Itzulpen-lan horiek argitaletxe edo ikastetxeren batek eskatuta itzuli zituen, nonbait, era oso didaktikoan prestatuta dau-de-eta. Horrela, gai bati buruzko azalpenak itzuli ondoren orri ezberdinetan banatutako irudien azalpenak ere ageri dira. Gai bakoitzaren amaieran, oster, neologismoen esanahia aditzera emateko hiztegi txiki bat jartzen du, hitzen gaztelaniazko ordezkioak aditzera emanez.

Gaur egun bestelako irtenbidea hartu dugu; hau da, besterik gabe lekua egin diegu inguruko hizkuntzetan aho batez onartzen diren hitz maileguei: *historia*, *arku*, *tribu*, *natura*,

monumentu, piramide, plano, zentro, metro, neolitiko, angelu... A. Emilianok itzulpenak egin zituenean, ordea, zabarkeriatzat jotzen zen hori.

AZKEN HITZAK

Lerro hauetan Aita Emilianok, sarritan inoren laguntzarik gabe, baliabide eskasak zituela, liburuak euskaratzea hain zaila zen aldi haietan eginiko itzulpen-lanaren berriak eskaintzen ahalegindu naiz. Lerro hauetan bildutakoa zuek gogoko izatea itxaroten dut. Nire aldetik, pozik nauzue aspaldiko zorrak kitatu ditudalako, hau baino gehiago zor baitiot euskal munduko lehen urratsetan lagundu zidanari.

*Patxi Uribarren Leturiaga
Aramaloarra*

ERANSKINAK

1. Luis Evelyn abataren "Gizon ori zeu zera" liburuko lagina

Jesus'ek dena jakin nahi izaten zun: landa-zear topatzen zun edozer zitzaion atsegingarri. Nolatan maitte zun Izadia! Zein miragarriak zitzaizkion zuaitzak, aran zabalak, ebakitzeko eldu-elduak zeuden gari-saillak, eta guk askotan uzkeritzat dauzkagun beste ainbat eta ainbat eixe-ingurutako gauzatxo. Estalpe baten jaio zan, mendi gain baten il, eta ortu eder baten eman nai izan zun gaurik illunena, samingariena.

Jesús sentía curiosidad por todo, se entusiasmaba con cualquier cosa del campo. ¿Cómo amaba la Naturaleza! Con qué complacencia contemplaba los árboles, los valles, los trigos "que ya estaban amarillos para la siega", todas las cosas familiares que nosotros muchas veces no sabemos apreciar. Nació en un pesebre, murió sobre montaña y fue en un huerto donde quiso vivir su noche más dolorosamente humana.

*Ebanjello guztia dago mendi-
zezarretako aize eder garbiz eta bi-
de-nabarretako ibiltaldiz bete. Ta
nola zekian egualdiari antza
ematen, erritarren esaera zarrak,
muño-gaiñetako loretxoen ederta-
suna, txoritxo ta egalarrien oitu-
rak!... Gizonen asper-jardun eten-
gabeak entzun bear izan ondo-
ren, bake pitin bat nai zunean,
aien edotarako kezkaz, illeta-so-
ñuz, eskabide narrasez, bere erri-
tarren buru eta biotz-gogorkeriz
nekatua sentitzen zanean, itxas-
ontzitxo bat artu eta bere lagun
zimtzo banaka batzuekin uretan
barna joaten zan, ango ozkirri
gozoz birikak aizeberritzera.
Egun artan Jesus bere etxetik irten
eta itxas-ertzean exerri zan.
(Jainkoa maitasuna da, 83. or.)*

